

Euskal historiografiaren ikuspegi gaurkotua, iraganeko begirada euskaldunen abiadan

(Perspectives on Contemporary Basque historiography and voices of the Basque speaking people)

Agirreazkuenaga Zigorraga, Joseba

UPV/EHU. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fak. Sarriena, z/g.
48940 Leioa

BIBLID [1136-6834 (2005), 34; 407-422]

Jaso: 04.03.03

Onartu: 04.03.03

Azken hogei urteetan, euskal historiografia euskaraz ere landu da. Historiografia desberdinen ikuspegitik abiatuz, euskal historiografiaren iragana aztertzen da, euskal narratibaren zati legez. XIX mende bukaeran euskal historiografiaren paradigma berriak euskaraz ere landu ziren. Gaur egunean, euskarazko historiografiak etorkizunari begira dituen egin beharrak proposatzen dira.

Giltza-Hitzak: Historiografia. Euskaraz. Historialariak.

El artículo es una reflexión sobre las diferentes historiográficas vascas. Desde el siglo XVI consta una narrativa histórica expresada en lengua vasca. En ese contexto se han desarrollado memorias y miradas históricas en el contexto del discurso historiográfico vasco, expresadas por creadores vascófonos. La población vascófona de Euskal Herria emerge y se construye en sujeto historiográfico, mediante diversas narrativas. Finalmente, se sugieren ideas sobre los retos de los historiadores para el desarrollo de una renovada historiografía de Vasconia.

Palabras Claves: Historiográfica. Lengua vasca. Historiadores.

L'article est une réflexion sur les différentes historiographiques basques. Depuis le XVIème siècle il existe une narration exprimée en langue basque. Dans ce contexte on a développé des mémoires et des regards historiques dans le contexte du discours historiographique basque, exprimés par des créateurs bascophones. La population bascophone d'Euskal Herria émerge et se construit en sujet historiographique, au moyen de diverses narrations. Finalement, on suggère des idées sur les défis des historiens pour le développement d'une historiographie de Basconie renouvelée.

Most Clés: Historiographique. Langue basque. Historiens.

1. HISTORIOGRAFIEN HISTORIATIK ABIATUZ: DISKURTSU HISTORIKOAREN SISTEMEN ABIADA

Duela 20 urte euskal historiaren arloan aldizkari berria antolatu zuen Eusko Ikaskuntzak. Premiazkoa zela, ez dago zalantzarik. Euskal Herriko unibertsitateetan ez zegoen euskal historiari buruzko aldizkari bereizirik. Unibertsitateetatik at antolaturiko zientzi elkarteetako aldizkarietan, argitaratzen ziren euskal historiari buruzko ikerketak. Gogoratu behar zeintzuk argitaratzen ziren Principe de Viana, edo Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País edo Baionako Euskal Museoaren Bulletin du Musée Basque edo Baionako Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts et de Bayonne, 1873an sortua azken hau. Garai berberetsuan, Euskal Herrian historialari profesionalen andana berria agiri zen. Unibertsitate publiko eta pribatuetan, giza zientzien ikasketak antolatu hala, bertako irakasleak, doktorego tesiak eta ikerketak eginez, euskal historiografiaren ikuspegia aldatzen hasi zen. Eta aldi berean, hizkuntza desberdinetan bideratu zen Euskal Herriari buruzko ikerketen emaitzak. Euskal Herriko hizkuntzetariko batean, euskaraz, ikerketa lanak argitaratzen hasi ziren. Eta Eusko Ikaskuntzako Historia sail akademikoaren aldizkaria horren adierazle ere izan da. Beharbada, baten batzuk gurako genukeen baino gutxiago. Dena dela, esan behar da, euskal historiografiaren arloan, euskarazko lanak ez direla berriak. Ez da ez, azken belaunaldiaren ekarpena berau. Berezia zera izango litzateke, profesionalki, unibertsitatean eta hezkuntza sarean lanean dihardutenen lanak agiri direla.

Baina berriki Jurgi Kintanak UEUK argitaratzen duen Kondaira aldizkari elektronikoan agiri duenez, badago egon, euskal narratiba historikoa, mendetan zehar, euskal literaturaren esparru zabalean, euskal memoria historikoa-ren isla. Batzuetan memoria soil gisa adierazia, beste batzuetan, arrazoiturik, memoria historia bihurtzen da bere estatus zientifikoa zainduz, arau zientifikoetan oinarritzen den heinean. R. Lopez Atxurrak, 1989an Jakin aldizkarian ere "Euskal historiaren historiografiak" idatzi zuen.

Beraz nire gogoeta ez da izen abizenen eta lanen erroldera mugatuko. Gehiago arduratzen nau oraingoan, historiografiaren historiografia atala betetzea eta beraz, euskal begiradaren nundik norakoa agiri, euskal historiografiaren bermoldaketa lanean jarraitzeko asmoz. Jakinezkoa da, euskal begiratuak, halaberrez gurean behintzat, beste hizkuntzetako ikusmirak aintzat hartzen dituela ere, azpi azpikoa eta nabarmenki aipatu ez arren. Beharrezkoa da da baina ez nire oraingo zeregina. Hala ere, oraindik orain, euskal historiografiak ez du betetzen sistema baten nortasuna, baina abiadan gaudela sinistu nahi nuke eta nire ahalegina horretara bideratuko da ondorengo urteotan.

Historiografiak, narratiba edo kontakizun historikoen nundik norakoa aztertzen du eta historiazko produkzioari zientziaren zentzua eransten du. Historiazko ikerketak eta narratibak eredu eta paradigma batzuen arabera burutzen dira. Ez da aski ikerketa enpiriko positibista ekartzea. Parekatu eta egokitu behar da ostean, historiazko beste ikerketen parean eta komunikazioa egiterakoan hizkuntza batean edo bestean egin, berez, giza zientzien

eremuan behintzat, aukera ez da neutrala bihurtzen. Hizkuntzen ezagutza soila ez da aski. Komunikazioa sortzeko unea, sorkuntzaren prozesuaren baitan kokatzen da eta horrek guzti horrek esperientzia zientifikoaren abiadan kokatzen du. Horregatik, euskaraz burutzea euskal historiografia beti iruditu zait premiazko, Euskal Herriko populazio historikoa eta gaurregungo parte handi bat euskaraz bizi eta komunikatzen delako. Baina horrez gain, adituak dira ikerketak egiten dituztenak eta nire ustez, euskarazko ikuspegi hau bereganatzen ez dituzten historialariak, ankamotzeko historiografia sortzen dutela iruditzen zait, hein batean, absurdua, hau da, A. Lertxundik oraintsu egunkarian adierazi duen legez, “surdua” edo gorra, euskaldunena ez dutelako entzun nahi eta.

Euskarazko historiografiak diskurtsu historikoen sistemaren baitan abiatzen da eta nire txosten honetan, beste batzuetan egin dudan bezala, delako diskurtsuaren nundik norakoa adieraziko dut laburki ondorio batzueetara iristeko. Historialaria, nahi eta ez, bere ikerketa diskurtsu bateren baitan kokaturik egiten du bere produkzioa. Euskal Herriari buruzkoa egiten ari denean, historikoki epe luzean buruturikoa dugu abiapuntu. Eta nire ustez, egon bada go euskaltzaletasunaren eremuko diskurtsu histokoa, nabarmen nabarmena, tokian tokiko aginte eta ikuspegiak indartzen saiatu izan dena. Erdi aro bukeran oraindik, diskurtsu historiko unibertuala zen nagusi, Bibliaren kontakizunen haritik. XVI mendean geroztik, “probintzializatzen” hasi zen delako diskurtsua eta XVIII mendean, iraultza liberalaren ondoren, Estatu-nazio erai ki berrietan, diskurtsu nazionalak nagusitu ziren, diskurtsu nazionala unibokoa eta bakarra, ahaleginez, eskoletan eta komunikabideetan agertzen delarik. Ikerketa eta diskurtsu berritzaileak zein zaharrak delako diskurtsuaren paradigmen baitan garatu da. Eta XXI mende honetan, nun alde batetik mundializazio prozesua, arlo ekonomikoan garatu den, bestalde tokian toki-koak eta elkartasun tradizionalako sozializazio prozesuak berbiztu diren, gure diskurtsu historikoa ezin da ohiko paradigmen baitan kokatu besterik ezean. Historioak eta narrazioak, garaian garaiko biztanleen ezagutza prozesuak indartzeko direlako. Transnazionala izan behar du eta ez nazionala soil soilik. Hala ere, transnazionala izateko, nazionalaren neurria eta izaera ere izan behar du. Eta gurean nazionala zer den aukeran dago. Baina nazio gintza edo nazionala bihurtze hori, objeto historiografiko bihurtzen da, denbora jakin batean gertaturikoa delako, hau da, iraganak eta gaurkotzea kutsaturik daudelako, denboran zehar gertatzen direlako fenomeno oro.

2. BENETAKO HISTORIAREN EZAGUTZAREN MUGAK: PIRRONISMOA, XVII-XVIII MENDEKO ZALANTZAK ETA GAURREGUNEKOA

Greziako helenismoaren garaian, k.a. 270 urte inguruan, Pyrrrok, erlatibotasun osoaren ildotik, ezagutza zuzena, benetako egia lortzea ezinezkoa zela adierazi zuen. XVII mendean, mito eta esakundeak gertaturiko egia historikoren parean ezarririk, berriz ere Pirronismoaren zantzuak agertu ziren. Baina zientzilarien artean, eta bereziki historiaren ezagutzarako premiazko neurriak finkatu ziren. Besteak beste, historiaren ezagutza zuzena eta egia aurkitzeko, agirien kritika zorrotza berritatu egin zen. Diploma edo nazioarteko agi-

rien zihurtasuna eta beste horrebeste gainontzeko arloetan lortu behar zen, ezer idatzi baino lehen. Metodo kritikoan abiatu zen zientzia historikoaren ezagutza. Gutxienez, agirietan oinarrituriko historia eta fikziozko narrazioetako bereizi ziren. XX mende bukaerako gaia dugu berau berriz ere, postmodernisten eraginez, historiaren ezagutzaren mugak, benetako egia lortzea ezinezkoa dela aldarrikatu da eta beraz, guztia fikzio desberdinen atala besterik ez dela. Berriz ere historia arte ederren atala balitz bezala aldarrikatuz. Gurean, P. Garcia eta I. Zalduak gogoeta barriak egin zituzten liburu batean.

Argi eta garbi dagoena zera da: Historia finalista edo helburu batzuen araberrako abiada historiko sekuentzi bakarrean ez dela gertatzen, Bibliako kontakizun indartsuak horrela erakutsi arren. Gai historiografikoen artean, batzuek sujeto indarrez sortu eta bateatzen ditugu eta beste batzuk objektu baina guzti hau, ikerlari eta idazlearen esku gelditzen dela azpimarratu nahi nuke. Ikerlariak jakin egin behar du, zein diskurtsuetan kokatzen duen bere ikerketa, diskurtsuaren morroi izan gabe, diskurtsuaren partaide dela erabat jabetuz.

XVIII mendea, literatur atalaren baitan kokatzen zen oraindik historiazko produkzioa baina bereizten ziren ikerketa eta produkzio guztien bi aldi: Idazkuntza edo literatura gertatzen den unekoa eta erudizio bidez, datu bilketa zehatza jazoten zenekoa. Voltairek bi eremu hauek ondo bereizten zituen: Entziklopedian zegoenekoa eta ondoren guzti horrekin autoreak sortzen duen literatura edo diskurtsua.

Ikerketa batean, sujetoak eta aztertuko diren gaiak, ikerlariak berak, ezarzen ditu. Hau da testuingurua eta presupuestoak, historialariak jartzen ditu. Baina zientzia ez da ondorio amaitu eta itxia, zirkulu zabala baizik. Zientzia historikoetan, ezagutza zuzenaren bidezko egia, probisional dela onartzen da.

Literatur produkzioan berriz, lana itxia edo bukatua gertatzen da, bere horretan delako arte ederra. Baina bai literatura zein azterketa historiko zientifikoak, hizkuntza eta beraz, unibertso sinboliko zehatzak erabiltzen dituzte, adierazpenak egiteko. Eta berau ere mugarriz ez ezik, aukerazkoa da eta orduan, biztanleriaren zati bat pribilejiatzen da beste baten parean, bere produkzioa aintzakotzat hartzen delako.

Egia historiko nagusien gainbehera gertatu da azken 20 urteotan eta historiografia berriak. Hasieran aipatu dudan historiaren krisialdiaren kontzientzia, mende bukaeran argi eta garbi berriz dugu eta 1970ko hamarkadan jadanik, literatur kritikarien mundutik, egia nagusien gainbehera etorri zen. Egituren azterketetan oinarritzen zen historiografia gainbehera etorri da eta beraz Annales eskolaren zatiketa. Ondorioz arlo historiografikoen ugaltzea emendatu zen. H.V. Whitek "the fictions of factual representation" adieraziko du, historia guztiak positibistarena ere errelatibizatuz azken batean guztiak direlako artefakto literarioak eta egiak ezinezkoak direlarik. Orduan galdera zuzena da, egia batzuen lorpenak, benekotasunaren frogak garrantzirik ez? Guztia subjektibismo hutsa eta hutsala baino ez. Pio Baroja nobelista handiak ere bere memoriatan antzeko zerbait adierazi zuen:

Yo intenté hace años conocer la Historia de la España de la primera mitad del siglo XIX. durante mucho tiempo lei libros, folletos, papeles, para encontrar hechos exactos y demostrados. No hallé mas que incertidumbre y oscuridad. Unos historiadores se copiaban unos a otros y el primero que exponía datos no indicaba donde los había encontrado. Por estas, y por otras muchas razones hay que pensar en la tendencia de los escritores a buscar el conocimiento de un país en la literatura y no en la historia; es mucho más exacto, aunque parezca lo contrario, que las de los políticos, que quieren hallar estos conocimientos en la historia y en la estadística (Memorias, t. V., 62-63 orr.).

Azken urteotan iraganaren ezagutza zuzenagoa eta sakonagoa lortu dugu, esperientzia eta jakituria berriztu. Euskal historiografiak azken 20 urteotan berebiziko bilakaera eta abertastasuna irabazi du eta bere estatus zientifikoa nabarmendu du. Jakinezkoa da imaginarioren indarra edozein izkributan. Esperientzien bilduma, sujetoaren ikuspegitik behintzat biltzea eta jasotzea premiazkoa da. Euskal Herriaren berbizkunde historiografikoa objeto eta sujeto historiografiko izan zena berriz irabazi da. Garai bateko Oihenarten ikuspegi baskonikoa, hau da, euskalerritarra irauin egiten du, nagusitu ez arren. Humboldték ongi adierazi zuen, euskal diskurtsu komuna, mendebaleko hiru herrialdeetan bazegoela, baina ez Euskal Herri mailan. Euskal Herria sujeto historiografikoa nola sortu den ikusteko, aipagarria eta jakingarria du K. Larrañagaren ikerketa. Euskal historiografia asko aldatu da eta Vasconia aldizkaria bere neurrian horren isla ere badugu.

3. IRAGAN EUSKALDUNA: EUSKAL NARRAZIOAREN ABIADA ETA EUSKAL HISTORIOGRAFIAREN ESKILARAREN MAILAK

Euskal historiografiaren historia laburtua, halaberreharrezko dialektikan, erresuma frantsez eta espainolarekin batera buruan eduki behar dugu, gaurko egoera eta ondoko urteotakoa diseinatzeko orduan.

Kronistak izan ziren, Gaztelaren erresumaren zerbitzuan eta Nafarroako erresumaren nortasun politikoa indartzeko. Hala ere, historialari zentzu heretsian, Lope Garcia de Salazar XV mendean, eta bereziki E. Garibayekin, Moret Nafarroako erresuman ditugu.

Euskaldunen ikuspegikoa aldiz, iparraldean sendotu zen, bertan euskaldunen nortasuneko narratibak eta kontakizunak sendotu zirelako XVI eta XVII mendean, Leizarraga eta Sarako eskolako idazleen bidez. Iraganaren ikuspegi nabarmena dute eta historia unibertsalaren zatia euskaldunen naziora ere begirada luzatu beharrezkoa agiri zuten.

Iparraldean, euskaldunen historia orokorraren premia gero eta nabarmenagoa gertatu zen. Eta hemen, A. Oihenart bezalako idazle euskaldun batek, Nafarroako historia ardatz hartzen duelarik, Gaztelako konkista salatzen eta Frantziaren erresumaren zati bihurtzeko, baskoak edo bascoiak sortu zituen sujeto historiografiko gisa. Mendebaleko hiru herrialdeak ez zirela Cantabriakoak defenditu zuen eta Nafarroako erresuma, Vasconia-ko lurraldeetako zela defendatu zuen eta Nafarroako erresuma Frantziako

erregearena. Agiri asko erabili zuen eta kritika zorrotza dokumentuen azterketarako. Ondoren XVIII mendean J.Ph. Belak eta Joseph Eguiateguy eta XIX mendean beste idazle asko, euskaldunen historiak idazten eta asmatzen hasi ziren.

Hegoaldean, historiografia, legelarien azpiko zientzia bihurtu zen, foru teoriaren babespean. Euskalerriko Adiskideen sorreran, euskal historia “nazionalaren” hau da mendebaleko hiru probintzien historia komuna idazteko proiektua aurkeztu zuen Olasok eta Landazurik idatzi zuen bai, hiru herrialdeetako historia. Hala ere, iraultza liberalaren dinamikan, paradigma berriak aplikatu ziren euskal historiara. Alde batetik Espainiako hiztoriazko Erret akademiak, ukatu egiten zituen euskal historiak zituen oinarritzko mito fundatzailerak. Bestalde, tokian tokiko aginte politikoa sendotzeko Aranguren eta Novia de Salcedok sendotu egin zuten diskurtsu historikoa Antxinako euskaldunen alabantzak, 1817an inguruan, paradigma historiko berria, adierazi zuen. Erbestekoen kontrako historia izan da euskaldunena. Euskaraz idatzi denez gero, euskaldunak dira sujeto historiografikoa eta ohizko mitoak bertsoz bertso, herriaren hizkeran adierazi ziren. XIX mendean, J.I. Iztuetak euskaraz idatzi zuen Gipuzkoako historia. Badago egon publiko euskalduna eta euskaldunentzat, idazten da euskaraz.

Bigarren menderdian, leiendatetik historia positibora egin zen jauzia.

4. XX. MENDEAN BARRENA, EUSKAL HISTORIOGRAFIAREN MOLDAKETA

Azken medean eta bereziki, azken hogeitaz urteotan euskal historiografiaren ibilbidea oparoa izan da. Sortu eta garatu izan da, historiografiaren arloko gogoeta, hau da, ulertu eta egin beharrezkoa da historiografiaren historia laburra. Honako honetan, nire ustez, Euskal Herrikoa, modu orokorrean aintzak eta ekarpenak egin dituzten autoreak aipatuko ditut. Bakoitzaren historiografiaren presupuestoak eta paradigmatik zeintzuk izan diren, beste lan baterako uzten ditudala. Dena dela, Karmelo Etxegarairen gogoeta batez hasiko naiz, XX mendean hasieran, K. Etxegarai eta A. Kanpionek euskal historiografiari buruzko gogoetak hasi zituztenelako. Horrez gainera, K. Etxegarai euskaraz ere lan historiografiko jakingarriak argitaratu zituen.

Trabajos de un cronista liburuan, K. Etxegarai, 1898an argitaratu zuen eta bere helburu historiografikoa argi eta garbi adierazten zuen:

“la más constante y arraigada de mis aspiraciones: la de contribuir por mi parte a la renovación de los estudios históricos relativos al país vascongado, a fin de que sean cada vez menos espesas las tinieblas que pretenden ocultarnos cual era la manera de pensar, de sentir y de obrar, cual era, en suma la manera de vivir de las generaciones que en la sucesión de los siglos ocuparon el solar euskaro” (...) “la historia no es obra exclusiva de los grandes, de los proceres, de los caudillos, mas que de ellos, es obra de los pequeños, de los desconocidos, de los anónimos de los invisibles, de aquellos que constituyen lo que llamamos pueblo”.

Horra bada, asmo berritzaileak aipatu zituen. Esaldi honetan azpimarratu behar da berriztatu nahi zuela euskal historiografia. Berriztapena lortzeko, oinarrizko abiapuntua sorburu historikoak kritika zorrotzez aztertu behar ziren eta iturrien irakurketa berriak eginaz, historia berriztatua sortuko zen, dokumentuek berez ez dutelako hitzik egiten baina bestalde historiarik ezin daiteke burutu erudizio enpiriko gabe. Horregatik ez da mugatzen positibismo dokumetalistara edo sorburuen kritikaren teknikara. Frantziako Agustin Thierry izango zuen eredu eta beraz ikerketa eginez, artistaren jitea ere erakutsi behar zela, aldarrikatu zuen.

K. Etxegarai izan zen Eusko Ikaskuntzaren sorreran, historia sailaren baitan, euskal historia berritzailearen zantzu berriak adierazi zuen gizona. Eta bere anaia zena, Bonifazio Etxegarai Euskal historiaren laborpen bikaina idatzi zuen Espasa Entziklopediarako. Hala ere, A. Kanpion, dugu euskal historiaren beste oinarrizko zutabea XX mendean. Kanpion historia eta fikziozko literatura uztartzen saiatu zen. Literatura bidezko kontakizunak zituen gogo-ko, egia historikoa adierazteko, era ederrean adierazita, bere garaiko gizartearen kezken trasunto bihurtzen zituela.

Lege zaharraren garaian, historiako frogak legezko indarra hartzen zuen eta beraz diskurtsu historikoa erakundetze sozio-politiko-ekonomikoaren lejitimazioarako oinarri. Erromantikoen garaian erdi aroa goratu zen eta Nafar erre-suma ikur erakargarria bihurtu zuen, bere burujabetzaren nortasunean.

Iparraldean, Euskaldunen historia orokorren kontakizunak eta ikuspegiak zabaltzen hasi ziren, XVII mendez geroztik (Oihenart, Bela, Txaho). Bestalde J. Moret historialari nafarraren ikuspegi hartu zuen.

Baina bere garaian, jabetu zen, bereiztu behar zuela mito-leienden edukia eta historiako benetako gertakizunen iradokizuna. Eta bi eremuak bereiztuz, diskurtsu historiko berria asmatu zuen: Euskaltzalea zenez gero, Euskalerrria zen bere ikusmira, Nafarroa erdigune eta abiapuntu zuela. Nafarzaletasuna, euskaltzaletasunaren izate bereko nortasunean uztartu zituen. Bere euskal abertzaletasuna euskal hizkuntza eta kulturazkoa zen eta ohizko tradizioko fuerismoan kokaturik, Gaztelaren aurkakoa bazen, ez da agiri anti-espainiarrean ikusmoldean berpentsatua.

Txahok Baionan, A. Kanpion Iruñean eta S. Arana Bilbon, euskaltzaletasunaren ildoan, abertzaletasuneko diskurtsu historiko desberdinak asmatu zituzten.

Bere diskurtsuan, jatortasunaren ideia indartsua agiri da eta azken mendeetako Euskal Herrian garai bateko jatortasunaren ondamendiaren historia balitz bezala aztertu zuen. Jatortasun hau, euskal hizkuntza eta foru erakundeetan legoke giharturik. Berrezarkuntzaren prosezua abian jartzea zen helburu, ustezko delako jatortasunaren zutabeak indarrean jartzeko. Eta horregatik iragana aztertu behar zen, etorkizuna lantzeko.

Mitoak badu egia-aren zatia adierazteko gaitasuna bere ustez eta azken batean gizakion patua eta grinak ezagutzeko, literaturaren bidea zen zuzene-

na. Historia arte ederretako edo literaturaren atala bihurtzen zuen. Ideia bera bere memorietan, Pio Barojak idatzi zuen. Gai zehatz batzuk aztertzerakoan, adibidez karlismoa, ikuspegi sikologista landu zuen, fenomenoaren zergatiak ulertzeko.

Azkenik, Euskara elkatekoek, bere kabuz, tokian tokiko indar politikoa eta beraz, tokian tokiko diskurtsua, sendotu nahi zuten, elkarren arteko harremanetan nortasunaren jite komuna iraun arazteko, etorkizunaren jabe izateko. Ondoren beste esparrutan nortasunez abiatzeko. Azken batean, Euskalerritasun historikoaren eta literarioaren ikurra bihurtu zen bere bizitzan eta bere produkzioa historikoa, zentzu zabalean, horren isla dugu.

Historiografiaren gogoetan, Th. Lefebvren lana *Les modes de vie dans les Pyrénées atlantiques orientales*, Parisen argitaratua 1933an, aipatu beharrekoa da, euskaltzaletasunaren ildoan edo abidan sorturik egon ez arren. Metodo berritzailea eta beste paradigma berri berria ekarri zuelako, baina tamalez, ez zuen eskolarik edo jarraitzailek izan.

Ildefonso Gurrutxagak 1930ko hamarkadan euskal historiaren ikuspegi mugatuagoren baitan, K. Etxegaraireren kezka ekarri zituen, mitoz eta ezjakintasunez jantzitako euskal historiaren orde, zientzi historikoaren oinarrietan egin behar zela, aldarrikatuz. Bestalde, euskal historiografia erabat eztabaidatua eta korapilotsua bihurturik zegoen. Ideologi desberdin bakoitzak bere historiografia sistema berezia asmatzen saiatu zen. Gogoratu besterik Politikagintzaren ardatzean S. Aranak bere diskurtsu historikoa asmatu zuela, areago, narratiba edo kontakizun berrietan oinarritu nahi zuen ondorengo historiografia eta G. Balpardak erabat kritatzen zituela. Legelari eta erakundetze arloan: J. Oruetak eta beste saiatu ziren, fuerista eta antifueristen paradigmatatik at irtetzen, estatutismo politiko legalaren bidez. Beraz, euskal historiarik, gutxienezko komunitasunaren baitan, zaila baino zailagoa agiri zen. Eta iparraldean, euskaraz, euskaldunen historiak arrakasta izan zuten, hegoaldeko historiografia kontakizuenetatik at.

Literatur giroan: Unamuno, Barojak, iraganaren memoria berreskuratu eta bermoldatu egin zuten.

Eusko Ikaskuntzen VII Kongresua Lizarran egitekoa zena, Euskal Historiografia berriaren asmoetan sartzeko pentsatua izan zen, baina tamalez, militarren altxamentua eta Euskal Herrian karlisten erakunde armatuarenak, ezerezean utzi zuten asmo ederra eta Euskal historiografiak erakundetze sendoa ezean, harik eta unibertsitateak sortu arte, ekimen pertsonalen ekimenera mugatu ziren. Guztien artean, nabarmenena 1949an J. Caro Barojak, *Los Vascos* liburu eredugarrian, euskal herriaren historia paradigma berritzaileak, barneko ikuspegitik abiatuz burutu zuena aipatu behar dugu. Eta ondorengo urteotan, Euskal Herriko historia sozialari buruzko gogoeta historiografikoak, eten barik idatzi zituen.

1930. urtean Euskal Herriko historia nazionalen testuak, S. Aranaren paradigman oinarriturik argitaratu ziren (B. de Estella, B. Estornes) eta A.

Ortuetak, helburu berdinez, baina A. Kanpionen iturburuetatik abiatuz idatzi zituzten. Ondoren J.A. Aguirreren proiektua gogoratu behar da baina azkenik burutu gabe gelditu zena.

Baina arlo hau bukatzeko, historiografia arloan azken hamarkadetan egindako gogoetak aipatu behar ditugu, garrantzi handikoak direlako, hor bertan nortzuk, nun eta zein egoetan euskal historialari bihurtu ziren erakusten dutelako. Historiografia historiaren baitan lurralde autonomia bihurtu da eta gurean ere badu bai bere ildoak. Honako hauen lanak aipatuko ditugu, guere aldetik egindako gogoetak alde batera utzita: A. Mañarikua, B. Estornes, M. Montero, I. Olabarri, K. Larrañaga, M. Goihenetxe eta beste batzuk.

5. EUSKAL INTERPRETAZIO BIDEETAN, FIKZIOZKO GENERO DESBERDINEN BEREIZKETA ETA ABIADA DATORREN 20 URTEETARAKO

Historiaren errepresentazioa eta funtzioa gizartean, ohizko memoriatik abiatuz egin behar da. Baina iruditzen zait, azken 20 urteotan ahaztu egin dugula, populazio euskaldunaren historia burutzeko unean, beharbada euskaraz ere egin behar ditugula. Historiografia desberdinetan agiri dira azalezko eta sakonezko presupuestoak.

Ikerketarako estrategiak egiteko unean, bereiztu eta sakondu beharra dugu, Teoriak eta datuen bilketa. Erdudizioaren premia edozein historia ona egiteko, nahi eta ezko baldintza dugu.

Denborak eta erritmoak ere bereiztu beharra dugu gure kontakizun eta ikerketetan. Gure euskal gizarteetan, erritmo arkaiko-mitikoa, kronologikoa, teknikoa, aldakuntza azkarreko eta geldokoak nabariak dira. Badago egon azken aldian, tokian tokikoa eta historia nazionalak: Zerk bihurtzen du nazionala diskurtso bat: Lurraldetasunak? Nork eta zerk markatzen du lurraldetasunak? Hizkuntzak? erakundetze politiko-administratiboak? Horra zenbait galdera. Nire ustez, euskaldunen historiak egitean, komunitate batekoa da eta dimentsio ugari hartzen ditu honek, besteak beste nazionala baina ez hori bakarrik. Euskal Herriak (Europakoa eta Ameriketakoa) eta aurkitu beharreko saketak.

Ikerketa lerroak ez dira ez neutralak. Honako hauek hobesten ditut guregunean:

- Historiografiak eta kontakizunak.
- Biografiak eta biografia kolektiboak. Ahozko informazioetan oinarrituriko dokumentuak eta hiztegi zabalak, sendoak.

Nire ustez, azpiegitura lanak burutu behar dira, erudizioan oinarriturik eta aldi berean kontakizunen literaturak, ikuspegi europarrean kokatu. Euskal artxibategi eta biblioteka nazionalik ez izateak, bada oztopo XXI mendeko diskurtso historikoari begira.

Horregatik, honako erronkak ikusten ditut:

- Euskal narratibaren gainbehera erakusten dute, zenbait editorek eta aldiz, historiografikoa hasi berria den unean gertatu da hori. Euskarazko literatur narratibaren berrindartzea sortu den bitartean, ez aldiz antzekorik gertatu historiografiko arloan.
- Erudizio berrirako azpiegiturak: Artxibategietan, biblioteka, hezkuntza, hedabideetan.
- Nazioarte mailako parametroak: Eleaniztasunaren gaitza eta aukera.
- Euskal historiografiaren abiada premia Unibertsitateetan:
 - Ikerketa proiektuak aurreratzeko taldeak eta produkzioa euskaraz burutzeko gaitasuna. Akademian lehiatzeko estrategiak eta euskaldun begiratuan lantzeko astia sortu behar dugu.
 - Euskal Herriko historia, industria gunee bihurtu, euskaldunen begiradatik abiatuz. Horretarako, maila desberdinak sistematizatua sortzeko abiadan jarri: Produkzio guneeak, jardunaldiak, zabalkunde mediatikoa hari bereko ekintzak dira.

Azken batean, euskal sistema historiografikoa sortzea gendake helburu eta honetan, Vasconia moduko aldizkaria burubelarri aritu beharko litzateke. Euskal historiografiari buruzko gogoetak, giza zientzien arloan.

Argitu behar den bakoitzarn unibertso sinbolikoak hots nazioari buruzko diskurtsua, berezko hori, modu arrazoituan jartzeko eta herri batean ezin dai-teke egon diskurtsu historiko bakarra, zeharka diskurtsu desberdinak ager-tzeak aberasgarria da. Eta lehentasunak irabazi egin behar dira, inork ez du deus ere ez oparitzen. Jardunaldi hauetako programari begirada eman ezke-ro, nabarmen dugu, euskaldunok bigarren mailara txokoratuak izan garela. Baina hori ikuspegi ezkorretik begiratubarik, zergatik ez gara gai geure lekua irabazteko pentsatzea da niretzat eraginkorragoa, gurekin ez delako historia hasi ez eta bukatuko. Ikerketak eginez lan eginez lortuko dugu gure maila eta gureak 20 urte barru beste posizio batean egotea geure ahaleginaren ondo-rioz izango da. Euskal eskola historiografikoaz ari naiz. Egindakoa ez da gutxi baina lanak handiak dira. Herriak zeharka ardatza sendotuz egiten dira eta ez muturka, muturtu ezker, ahulenak galtzeko arrisku handiagoa du eta euskaraz produktizeak hain zuzen ere, ahulen eremuan dago. Guk zer galdu gehiago dugu.

Azken batean, nun kokatzen garen argi eta garbi adieraztea lagungarria da: Ikerle-idazlearen kokalekuaz pentsatu behar dugu eta aukera egin. Tokian tokiko historiografiak, mundu mailako historiografiak, historiografia nazional murritzaileak. Sujetoak versus objetoak: Protagonista eta aktoreen bidezko historia berritzaileak behar ditugu eta honetan berriz ere kontakizunen bidezko literaturak lagungarriak dira.

Espainiar eta Frantziar historiografia mononazionalak versus plurinazionalak ere badaude egon. Adibidez, Menendez Pidal versus Boch Gimpera.

Agintea nun, historia han esaten da, baina euskal aginte politikoa dagoen tokietan ez da agiri, historiak garrantzirik duela.

Azpiegiturak sortzea beharrezkoa da, azken batean, etorkizunaren erreproduktzio sistemaren iraunkortasuna eta diskurtsuaren berriztasunaren ildak lantzeko.

Narratiba desberdinak sortu dira honezkero Euskal Herrian: Euskaltzalea dugu baina egon badaude, Espainiar edo Frantziar eskualde soiltzat erabiltzen dituztenenak ere. Euskal sujetoen diskurtsuak, bere hastapenetan dago oraindik orain.

Euskarazko begirada gabeko Euskal Herriko historiografia zientifikorik ez da posible idaztea, hizkuntzak eta espresibideak, halaber munduarekiko harremanak bideratzeko eta egokitzeak ikur eta sinbolo sistema egokia delako. Eta berau ulertu gabe ez dago hori interpretatzerik. Hurbilketa dugu historiografia, ez baitago absoluturik, baina euskararen bidezko hurbilketa, euskal testuak, narratibak, tradizioak eta ikuspegiak murgilduz.

Aginteak begiratzeko era desberdinak daude: Adibidez, 1808an edo 1812an diskurtsu nagusiak politikoki Nazio berria, Espainiakoa, eta parlamentu bakarra ezarri zuten eta oraingoa, parlamentua dugu nazioaren gune errepresentatiboa eta parlamentarien historia, tokian tokiko historia eta aldi berean, errepresentazio nazionalen historia burutzea ere bada. Historia nazionalak murriztaileak eta antzuak dira, modu aprioristikoan mugatzen dituztelako ikuspegi organikoak. Nazio ikuspegiatik haratago ikusteko historiak idatzi behar dira. Historiak ez duelako funtzio zehatzik, narrazio ikuspegiak lantzea baizik. Eta honetan aukerak eta gaiak daude. Baztertuak izan gara euskaldunak, zerbait bagarela sinisten ari gara eta oraindik gure egitekoa gure lanak handiak dira.

Bertsio arrotzak ba ote daude? Denak dira geurearen zati bat. Kategoriak denok asmatzen ditugu eta ez daude berezko propiorik

Ikerketa identitarioak garrantzi handikoak bihurtu dira baina nire ustez, pertsonak eta kolektiboak nortasun ugariak dira eta guztiak aztergai bihurtzea da historialari baten egitekoa.

AZKEN ONDORIOA

Hogei urte barru, euskarazko historiografiaren garapena indartsuagoa izatea nahi nukeela, azpiegitura sendokoa, erudizio handikoa eta nazionarteko eztabaidetan txertatua, Europa berriko ikuspegiaren arabera diskurtsu historiografiko berrien abiadan. Datorren urtean, Sidneyen 20th International Congress of Historical Sciences izango da. Gai ugari aztertuko dira. Euskal

esperientzia historiko gaiak bertan aurkeztea eta eztabaidatzea premiazkoa deritzot. Berriz ere, Mito eta historia, mito fundatzaileen sorrera, garapena eta historialarien erantzukizuna izango da gai nagusietariko bat. Bada beste bat: Mendialdeetako herriak eta gizarteak, eta ordezkartzaren bidezko erakundeen garrantziaz ere. Euskal Herriko esperientzia historikoa aztergai dugularik, nazioarteko erakundeetan behar dugu hedatu eta konparagai bihurtu, azken batean, giza esperientziaren historiak daudelako eta bata bestearen parean, ulergarriagoak bihurtzen dira aniztasunaren baitan.

Kondaira onlinezko aldizkariak ildo berria hasi du, euskal historialarien topaleku. Vasconia aldizkariak ere nolabaiteko elkarlana erabaki beharko luke, Kondaira eta Vasconiaren artean sinergia berria eta berritzailearen eragile izan daitezen.

AIPATURIKO BIBLIOGRAFIA

- AGIRREAZKUENAGA, J. *Euskal gizartean barrena euskaltzaletasun politikoaren sorrera garaian: zaldunak, matxinoak, enpresariak, langileen eraketa (1789-1876)*. Bilbao, Beitia Ed., 1994.
- AGUIRRE, J.A. *Obras completas*. Donostia 1984, t. II; pp. 633-707.
- ALTZIBAR, X. *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, astarloatarrak, Frai Bartolome. Nortasuna, idazlanak, grafiak*. Bilbao, Bizkaiko Foru Aldundia, 1992.
- ARANGUREN, F. *Demostración del sentido verdadero...* Madrid, 1807.
- ARROYUELO, F. *Pío Baroja y la historia*. Madrid, 1971; p. 11.
- ARTIÑANO, A. *El Señorío de Vizcaya histórico y foral*. Barcelona, 1885.
- ASTARLOA, P.P. *Apología de la lengua bascongada o ensayo crítico filosófico de su perfección y antigüedad*. Madrid, 1803.
- ASTARLOA, Pedro. *Urteko Domeka gustijetarako verbaldi ikasbidekuak, zeintubetan azalduten dan Erromako katesismua. Eurretan aurkituko dabe Armina-zain euskaldunak, eure elextar edo feligresari predikadu bihar deutzen ikasbidia: Baita bere kristinau euskaldunak, zer jakin eta egin bihar dabeeen*. Bilbo, Pedro Apraiz, 1818.
- AU BERCEAU des Annales. *L'histoire en France au debut XX siècle*. Toulouse, 1983.
- BARANDIARAN, J.M. "Nacimiento y expansión de los fenómenos sociales" in *Eusko Folklore*, 1924; pp. 119-195.
- CARBONELL, CH.O. "Pour une histoire de l'historiographie" in *Storia della Storiografia*, nº 1, 1982; pp. 7-25.
- CARO BAROJA, J. *Los vascos y la historia a través de Garibay*. San Sebastián, 1972.
- , *Género biográfico y conocimiento antropológico*. Madrid, 1986; p. 21.
- CARO BAROJA, J.; TEMPRANO E. *Disquisiciones antropológicas*. Madrid, 1985.
- CHAHO, A. *Histoire primitive des euskariens-basques, langue poesie, moeurs et caractere de ce peuple*. Madrid y Bayonne, 1847.

- DESDEVISES DU DEZERT, G.N. "Le régime foral en Espagne au XVIII siècle" in *Revue Historique*, 1896, LXII; pp. 236-281.
- D'IHARCE BIDASOUET, *Histoire des Cantabres ou des premiers colons de toute l'Europe, avec celle des basques leurs descendants directes, qui existent encore, et leur langue asiatique-basque. Traduite et reduite aux principes de la langue française* Paris, 1825.
- ECHEGARAY, B. *El proceso de la Zamacolada. Conferencia*. Bilbao, 1920.
- , "Vasconia" art. in *Enciclopedia Universal ilustrada. Espasa*. Madrid, 1929; pp. 148-169.
- , *Ensayo sobre la cuestión de los minerales de hierro*. Bilbao, 1910.
- , *La Vecindad. Relaciones que engendra en el País Vasco*. San Sebastián, 1933.
- , *La vida civil y mercantil de los vascos a través de sus instituciones jurídicas*. San Sebastián, 1923.
- ECHEGARAY, C. Informe acerca del trabajo: El vascófilo franciscano R.P.Fr.J. M. De Zabala, *RIEV*, 1927, XVIII, pp. 298-301.
- , "Historiadores guipuzcoanos. Gorosabel" in *Revista Contemporanea*, 1900; pp. 168-178.
- , *Compendio de las instituciones Forales de Guipuzcoa*. San Sebastián, 1924.
- , *Epítome de las instituciones forales de Guipuzcoa*. San Sebastián, 1925.
- , *Informe acerca de los documentos referentes a la historia vasca que se contienen en los archivos públicos*. San Sebastián, 1919.
- , *Las provincias Vascongadas a fines de la Edad Media. Ensayo histórico*. San Sebastián, 1895.
- , *Nacimiento, patria y peregrinaciones de J.R. Iturriza y memoria de los arcchivos y papeleras ordenados por el mismo*. San Sebastián, 1920.
- , *Inéditos de documentos referentes a la historia vasca que se contienen en los archivos de Brujas*. San Sebastián, 1929.
- ERRO, J.B. *Alfabeto de la lengua primitiva de España y exploración de sus mas antiguos monumentos de inscripciones y monedas*. Madrid, 1806.
- EUSKAL Historiografía in *Jakin*, nº 55. San Sebastián, 1989; pp. 9-129.
- EXTRAMIANA, J. "Historiografía vasca reciente" in *Historiografía española contemporánea*. M. Tuñón de Lara dir. Madrid, 1980; pp. 399-428.
- FERNÁNDEZ ALBALADEJO, P. "El País Vasco. Algunas consideraciones sobre su más reciente historiografía" in *España en el siglo XVIII. Homenaje a Pierre Vilar*. Barcelona, 1985.
- GARATE, J. *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel*. Bilbao, 1936.
- GARCÍA DE CORTAZAR; MONTERO, M. *Diccionario de Historia del País Vasco*. San Sebastián, 1983, 2 Vol.
- GARZIA, P.; ZALDUA, I. *Historia: Zientzia ala literatura? Historiari buruzko gogoeta sorta*. Bilbo, UEU, 1995.

Agirreazkuenaga, J.: Euskal historiografiaren ikuspegi gaurkotua, iraganeko begirada ...

- GEOGRAFIA *General del País Vasco-Navarro*. (F. Carreras Candi direct.) Barcelona 1911-1925, 5 tomos.
- GOROSABEL, P. *Noticia de las cosas memorables de Guipuzcoa o descripción de la provincia y de sus habitantes; exposición de las instituciones, fueros, privilegios, ordenanzas y leyes...* Tolosa, 1899-1900, 6 vol.
- GOYHENETCHE, Jean. *Les Basques et leur Histoire. Mythes et réalités*. Baiona, Elkar, 1993.
- GUIARD, T. *Historia del Consulado y casa de contratación de la villa de Bilbao*. Bilbao, 1973 (2 edición) 3 vols.
- , *La industria naval vizcaína*. Bilbao, 1917.
- GURRUTXAGA, I. “La matxinada del año 1766 en Azpeitia. Sus causas y desarrollo” in *Yakintza*, 1933, Donostia.
- , “Disertación del Dr. Ildefonso Gurruchaga. El Laurak Bat recordó la ley abolitoria de los Fueros Vascos de 1876” in *Euzko-Deya*. 30 de Julio de 1944. Buenos Aires. pp 10-11.
- , “Las guerras carlistas en el siglo XIX y su significación en la Historia Vasca” in *150 años del convenio de Bergara y de la ley del 25-X-1839*. (Agirreazkuenaga J. – Urquijo J.R. eds.) Vitoria, 1990; pp. 105-136.
- INTXAUSTI, J. *Euskara, euskaldunon hizkuntza*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 1990.
- IRUJO, M. *Inglaterra y los vascos*. Buenos Aires, 1945.
- KINTANA, J. “Euskarazko historiografia (I): aurrekariak eta lehen pausoak (XVI-XIX mendeak). www.kondaira.com, 1, 2003.
- KINTANA J. eta ARTETXE, K. (arg.) *Ikerketa berriak Euskal Herriko Historian: Metodologia aitzindariak eta berrikuntza historiografikoak*. Bilbo, UEU, 2002.
- LABAYRU, E. *Historia general del Señorío de Bizcaya*. Bilbao, 1895.
- LANDAZURI, J.J.: *Provincias Vascongadas*. San Sebastián, 1929.
- LAPEYRE, H. “A propos des Basques” in *Annales Economies Sociétés civilisations*. Paris, 1951; pp. 499.
- LARRAÑAGA, K. “W. von Humboldt y el proceso de definición de Euskal Herria como sujeto del discurso historiográfico”. En: W. von Humboldt: Un puente entre dos pueblos. (ed. J. Agirreazkuenaga&J. Azurmendi) in, *Revista Internacional de los Estudios Vascos* nº 41, San Sebastián, 1996, 477-509 orr.
- LEFEBVRE TH.: *Les modes de vie dans les Pyrénées atlantiques orientales*. Paris. A. Colin, 1933.
- LEZAMA LEGUIZAMON, L. “El vascofilo R.P.Fr. Juan Mateo Zabala (Apéndice bibliográfico) *RIEV*, 1924, XV, 337-350.
- LLORENTE, J.A. *Noticias históricas de las tres provincias vascongadas en que se procura investigar el estado civil antiguo de Alava, Guipuzcoa y Vizcaya y el origen de sus Fueros*. Madrid, 1806-1808. 4 vols.
- LÓPEZ ANTON, J.J. *Arturo Campión entre la historia y la cultura*. Pamplona, 1998.
- LÓPEZ ATXURRA, R. “La foralidad en la Historiografía vasca” in *Ernaoa*. nº 6, Bilbao, 1991; pp. 117-170.

- LÓPEZ ATXURRA, R. "Euskal historiaren historiografiaz", in *Jakin*, 55 zenbakia.
- MAÑARICUA, A.E. *Historiografía de Vizcaya (Desde Lope García de Salazar a Labayru)* Bilbao, 1973.
- NOVIA DE SALCEDO, P. *Defensa histórica legislativa y económica del Señorío de Vizcaya y provincias de Alava y Guipuzcoa*. Bilbao, 1851. 4 vols.
- OIHÉNART Arnaud, *Notitia Utriusque Vasconiae, tum Ibericae, tum Aquitanicae, quae praeter situm regionis et alia scitu digna, Navarrae Regum, Gasconiae Principum, caeterarumque, iniis, insignium vetustae et dignitate familiarum stemmata ex probatis Authoribus et vetustis monumentis exhibentur*. (Noticia de las dos Vasconias, la Ibérica y la Aquitana, en la que se describen, además de la situación de la región y otras cosas dignas de conocerse, la genealogía de los reyes de Navarra, de los príncipes de Gascuña, y otras familias ilustres por su antigüedad y dignidad, conforme se hallan en los autores antiguos). Gasteiz-Vitoria, Eusko Legebiltzarra-Parlamento Vasco, 1992, ed.R. Ciarbide. 1656ko faksimila. Lehen edizioa, 1637koa.
- OLABARRI, I. "Proyectos historiográficos de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País". En: *I Seminario de Historia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*. San Sebastián, 1986; p. 462.
- OLABARRI I. eta VAZQUES DE PRADA, V. "La sociedad vasca en los siglos XVIII y XIX: Estado de la cuestión". En: *Noveno Congreso de Estudios Vascos*. Bilbao, 1983; pp. 139-153.
- OTAZU, A. *El igualitarismo vasco. Mito y realidad*. San Sebastián, 1973.
- PRIMER Congreso de Estudios Vascos. Bilbao, 1919-1920; p. 738.
- ROMA RIU, J. "Julio Caro Baroja y la etnohistoria". En: *La antropología cultural en España. Un siglo de antropología*. Barcelona, 1986.
- , "Julio Caro Baroja y la etnohistoria". En: *La antropología cultural en España. Un siglo de antropología*. Barcelona, 1986.
- RUIZ DE LARRINAGA, J. "El vascófilo franciscano Fr. Juna Mateo de Zabala. Estudio bio-bibliográfico" *RIEV*, 1924, XV, 32-82, pp. 313-336.
- SAGARMINGA, F. *El gobierno y régimen foral del Señorío de Vizcaya*. Bilbao 1892. 8 vols.
- SÁNCHEZ MAZAS, R. "Apología de la historia civil de Bilbao" in *Un siglo en la vida del Banco Bilbao. Primer Centenario. (1857-1957)*. Bilbao, 1957; pp. 66-120.
- THALAMAS, J. *Aspectos de la vida profesional vasca. El campesino, el pescador, el obrero*. Donostia, 1936.
- THE SOCIAL SCIENCES in historical study. A report of the Committee on Historiography. *Social Science Research Council. Bulletin* 64. New York, 1954.
- URABAYEN, L. "Estudios de Geografía Humana. Una interpretación de las comunicaciones de Navarra". *RIEV*, 1926; pp. 529-564.
- VIZC. DE BELSUNCE, *Histoire des basques depuis leur établissement dans les Pyrénées occidentales jusqu'à nos jours*. Bayonne. 1847. 2 vols.
- YBARRA, J. *Política nacional de Vizcaya*. Madrid, 1949.
- ZABALA, J.M. *Fábulas en dialecto vizcaíno*. Bilbo, Euskal editoreen elkarte, 1986, A. Zelaletaren edizioa.

ZALBIDE, M. *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrenean. Hendai-Hondarribietako biltzarrak: Ortografia aitzaki, Eskualzaleen Biltzarra sortu zenekoa*. Sabino Arana Kultur Elkargoa. Bilbo, 2001.

ZAMACOLA, J.A. *Historia de las naciones bascas de una y otra parte del pirineo septentrional y costas del mar cantábrico desde sus primeros pobladores hastanuestros días con la descripción, carácter, furos usos, constumbres y leyes de cada uno de los estados Bascos que hoy existen*. Auch. 1818. 4 Vol.

ZAVALA, A. *Frantzeseko bertsoak, II* Tolosa. Auspoa, 1991.

—, *Frantziako iraultza eta konbentzioko gerra bertsoetan. (bertsoak)*. Donostia, Etor, 1989. 170 or.

—, *Frantzeseko bertsoak*. Tolosa, Auspoa, 1991.